

## **GERNIKA / Udan liburuak ere eguzkitan**

OIHANA CABELLO

Liburutegiak ateak itxi zituen atzo, eta liburuak kalean zeuden, eguzkitan. Edonoren esku, edonoren zain.

Liburutegia ikusgai ipini gura dute Kultur Etxeko arduradunek, eta hainbat liburuk eta DVDk Foru plazan dute orain bere lekua. Azken urteetan data hauetan lege, udako liburutegia martxan dago, abuztuaren 13ra arte. 10:00etan irekiko dute, eta 13:30ean itxi.

Arkupeetan ipini dituzte mahaiak, eta bertan marrazkiak egin ditzakete umeek, liburuak irakurri daitezke, baita eguneroko prentsa ere. Horrela, urtean zehar liburutegiaren erabiltzaile ez direnak ere erakartzea lortzen dutela azaldu dute udal liburutegiko langileek. Iaz, esaterako, 150 bazkide egin zituzten hilabeteen, udako liburutegia kalean zen denbora tartean. Hortaz aparte, urtean zehar egin ezin ditzaketen barne-lanak egiteko aukera ere ematen die kaleko udako liburutegiak.

### **Tailerrak eguaztenero**

Aipatutako zerbitzu horiez gain, umeentzako tailerrak ere eskainiko ditu udako liburutegiak, eguaztenero. Datorren astean hasi eta abuztuaren 11 arte egingo dituzte tailerrak. Hilaren 21ean txotxongiloen tailerra egingo dute; bertan, istorioak antzezteko panpinak sortuko dituzte. Hilaren 28an, berriz, altxorraren bila ariko dira umeak, ipuinetan oinarritutako jolas dibertigarrien bitartez.

Abuztuaren 4an ipuinetako kareta egiteko aukera izango dute umeek, eta abuztuaren 11n objektuen eraldaketa landuko dute, testuen bidez. Udako liburutegiak antolatutako tailer horiek guztiak 11:00etan hasiko dira.

### **TAILERRAK**

Uztailaren 21ean. Txotxongiloak. Istorioak antzezteko panpinak sortzea. Uztailaren 28an. Altxorraren bila. Ipuinetan oinarritutako bilaketa jolas dibertigarriak. Abuztuaren 4an. Ipuinetako kareta. Ipuinetako pertsonaien karakterizazioa. Abuztuaren 11n. Istorio objektuak. Testuen bidez, objektuen eraldaketa.